

Ihoberen 2025eko Memoria



URTEBETEZ JARDUNEAN EUSKADI ERALDATZEKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

“Lankidetzan aritzea trantsizioa azkartzeko”

Ihoberen jardunak bultzada nabaria izan du, eta horrek finkatu du erreferentziatzeko ingurumen-agentzia gisa jokatzeko dugun rola. 2025eko ekitaldiaren ezaugarri nagusia izan da lankidetzaren handiagotzea jardun dugula enpresa, administrazio eta lurraldeko eragileekin, trantsizio energetikoa eta klimatikoa azkartzeko xedez. Era horretan, gure lan-ildoaren izaera estrategikoa indartu dugu, hamarkada erabakigarri baten aurrean kokatzen gaituzten ingurumen-erronkei erantzuteaz batera.

Urteko mugari garrantzitsuen artean, bereziki azpimarragarria da Basque Circular Summit 2025 ekimena egin genuela, zeren berau Europako hegoaldeko ekonomia zirkularri buruzko enpresa-topaketa nagusia izatera iritsi baita. Topaketa horrek ahalbidetu zuen euskal ehun industrialaren ahalmen eraldatzaile bataratzea eta berrikuntza zirkularreko aukera berriak irekitzea. Orobat, 2025. urtean Euskadiko Ingurumen Koiunturari buruzko lehenengo txostena aurkeztu dugu, hots, tresna aurrendari bat, lurraldeko ingurumen-adierazle nagusien bilakaerari buruzko irakurketa eguneratu eta ulergarri bat eskaintzen duena, politika publikoari gardentasuna, zorrozatasuna eta aurrea hartzeko ahalmena ekarriz.

Azkenik, Ekoetxea Añana-Sobron ingurumen-zentroa ireki izanak indartu egin du ingurumen-hezkuntza eta -sentsibilizazioarekin hartuta dugun konpromisoa, zeren handitu egin baitu dibulgazioaren eta herritarrekiko konexioaren arloan erreferentzia diren zentroyen sarea. Gune berri hori gehitzen zaio erronka garaikideei egokitutako ingurumen-kultura sendo eta hurbila bultzatzearen alde ihobek egiten duen ahaleginari. Aurrerapen horiekin, eta inplikaturako talde eta eragile guztien lan bateratuarekin, 2025 aurrerapen esanguratsuko urte bezala ixten da, ingurumen-ekintza publikoa Euskadin indartzen jarraitzeko oinarriak jarrita.

ALEXANDER BOTO BASTEGIETA

Zuzendari Nagusia
Ihobe, Ingurumen-jarduketarako Sozietate Publikoa
Eusko Jaurlaritza



AURKIBIDEA

4	GURE MISIOA	16	2025 ARGITALPENETAN
5	GURE IKUSPEGIA	18	UDAKO ESKOLAK
6	2030rako ERRONKAK	19	NAZIOARTEKO PROIEKTUAK
7	JARDUERA-EREMUAK	20	ALIA NTZAK
8	IHOBE 2025 DATUETAN	21	IHOBEKO PERTSONAK
9	EKOETXEA SAREA	22	ADMINISTRAZIO KONTSEILUA
10	UDALSAREA 2030	23	ORGANIGRAMA
11	MUGARRIAK	24	GARDENTASUNA

GURE MISIOA

EUSKO JAURLARITZAKO INGURUMENA BABESTE
ETA HOBETZEA, ETA EUSKADIKO TRANTSIZIO
EKOLOGIKO-KLIMATIKOARI HELTZEA

HELBURUA

Euskal gizartea eta eragileak trantsizio
ekologiko-klimatiko bidezko baterantz
inspiratzea eta **mobilizatzea**

GURE IKUSPEGIA

2030 AGENDAREKIN BAT, EUSKADIKO TRANTSIZIO
EKOLOGIKO-KLIMATIKOA BULTZATUKO DUEN EUSKO
JAURLARITZAREN ERAKUNDE PUBLIKOA IZATEA

**NOLA
EGITEN DUGU**

- Koherentzia
- Lankidetzatza
- Kohesioa
- Erresilientzia

2030_{rako} ERRONKAK

1. Ihoberen posizioa **indartzea**, Euskadiko trantsizio ekologiko-klimatiko eta garapen ekonomiko jasangarria gidatzeko funtsezkoa den eragile publiko gisa

2. Arau-betekizunei erantzuten **laguntzea**, modu eraginkorrean, Euskadiko plangintza politikoaren hedapenean lagunduz eta hedapen hori erraztuz, ingurumena beste politika sektorial batzuetara eramatez batera -zeharkakotasuna-

3. Askotariko interes-taldeekin **kolaboratzea**, Euskadiko trantsizio ekologiko-klimatiko bidezko bat bultzatzeko

4. IHOBE erakunde bikain **bihurtzea**, giza taldeak eta erakundeak berak dituzten gaitasunen egokitzapena segurtatuz, lurraldeari balioa ekartzen dion kalitatezko zerbitzu publiko bat eskaintzeko

JARDUERA-EREMUAK



Ekintza Klimatika



Ekonomia Zirkularra



Ekoberrikuntza



Herritarren Ekintza



Kutsatutako Lurzoruak



Hondakinak



Tokiko Jasangarritasuna


639
ekintza
UDALERRIETAN ETA ERAKUNDE
PUBLIKOETAN

638 
enpresek
ERABILTZEN DUTE
CLIMATE&CIRCULARITY
CALCULATOR TRESNA

LURZORU KUTSATUEI
BURUZKO
21 
proiektu
IHOBEREN
PARTE-HARTZEAREKIN


3.986
pertsona
ETORRI ZIREN EUSKADIKO
KLIMAREN ETA ENERGIAREN
ASTEARA


2.267
enpresa
MOBILIZATUTA

Ihobe
2025
DATUETAN


1.087
pertsona
ETORRI ZIREN BASQUE
CIRCULAR SUMMITERA


IHOBEK PRESTATUTAKO
2.670
profesional


%92ko gogobetetasuna
IHOBEREN BEZEROEN ALDETIK


%15,22ko
gastua
BERRIKUNTZARA ZUZENDU ZEN

EKOETXEA SAREA

Ihobe sozietate publikoak kudeatzen duen **Ekoetxea Euskadiko Ingurumen Zentroen Sarearen** helburua herritarren ingurumen-hezkuntza eta eraldaketa ekosoziala bultzatzea da.

2025ean, sareak ekoetxea berri bat abiatu zuen: **Ekoetxea Añana-Sobron, Araban**. Zentro honek bi egoitza izango ditu: bata Sobronen, eta bestea Añana Gatz Haranean -espero da honen eraikuntza 2026an hastea-.

Ekoetxea berri honekin, **5 dira sare hau osatzen duten zentroak**, ekoetxea berri hau lehengo hauei gehitzen baitzaie: Urdaibai eta Meatzaldea Bizkaian, eta Azpeitia eta Txingudi Gipuzkoan.

 **Aldaketaren parte izan**



ekoetxea

Euskadiko Ingurumen zentroen sarea
Red de Centros Ambientales de Euskadi



132.611
bisita presentzial



337
esperientzia eskainita



20.141
eskola-ikasle
Eskola Programan



9,3ko
gogobetetasun-indizea

UDALSAREA 2030

Ihobe Udalsarea 2030-Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearen idazkaritza teknikoa da. Sare horren helburua da euskal udalerriei laguntzea jasangarritasuna euren tokiko politketan integratzeko lanean, espazioak, baliabideak eta tresnak eskainiz, hori guztia tokiko garapen jasangarriaren bidean aurrera egiteko, 2030 Agendarekin bat etorritz.

Helburu horrekin, Udalsarea 2030 ekimenak Euskadiko administrazio publikoko mailen arteko koordinazioa dinamizatzen du: Eusko Jaurlaritza, erakunde publikoak, foru aldundiak eta eskualde-erakundeak eta udalerriak.



226
udal



23
eskualde-erakunde



udalaz gaindiko
11
erakunde



udalsarea
2030



56
udalerrri
ATXIKI ZAIZKIO
ALKATETZEN ITUNARI



127
udalerririk
BADUTE KLIMA ETA ENERGIA
PLANA



NATURAN OINARRITUTAKO
31
soluzio
23 UDALERRITAN TXERTATUTA

MUGARRIAK

1

2

3

4

5

6

7

8

9

10

(01)

Euskadiko ingurumena datuetan

2025ean, lhobek Euskadiko Ingurumen-Koiunturari buruzko lehenengo txostena argitaratu zuen; bertan, ingurumenak euskal lurraldean duen kalitateari buruzko ideia sintetiko eta bisual bat itxuratzen laguntzen duten inguruen-adierazleak bildu eta aztertzen dira. Azterketa 9 ingurumen-arlotan sailkatu da, Ingurumenaren Europako Agentziak definitutako ingurumen-bektoreak erreferentziatzat hartuta eta gero Euskadiko testuinguru sozioekonomikora egokituta.

[+ info](#)



(02)

Ekoetxea Sobron-Añanaren irekiera

Uraren Munduko Egunarekin batera, Ekoetxea Sareak Ekoetxea berri bat inauguratu zuen, Añana-Sobronen (Araba). Zentro horren ardatz tematikoa ura izango da, antzinako Uraren Museoan kokatuta dagoelako, eta Euskadiko Ekoetxea Sarea jadanik osatzen dituzten lau zentroei gehitzen zaie, alegia, Urdaibai eta Meatzaldea Bizkaian, eta Azpeitia eta Txingudi Gipuzkoan.

[+ info](#)



(03)

Naturan oinarritutako soluzioak lantaldea

Ihobek lantalde aurrendari bat abiatu zuen naturan oinarritutako soluzioak (NBS, ingelesezko siglen arabera) Euskadin sustatzeko. Taldea honako erakunde hauetako ordezkariak osatuta dago: Bilbo, Donostia, Getxo eta Legazpiko udalak; udalerriz gaindiko erakunde publikoak, hala nola Bizkaiko Foru Aldundia eta Naturklima; berrikuntza-zentroak eta unibertsitateak, hala nola Tecnalia, BC3 eta UPV/EHU; elkarte eta klusterrak, hala nola Aclima eta Bilbao Urban; diseinu eta arkitekturako enpresak, hala nola Krean, AECOM eta Lur Studio; eta NBSak instalatzen dituzten enpresak, hala nola Tekura, ZinCo, Cubiertas Ajardinadas eta Cementos Hanson-Rezola.



(04)

Basque Circular Summit

Ihobek Basque Circular Summit 2025 ekitaldia egin zuen apirilean, hau da, Europako hegoaldeko ekonomia zirkularri buruzko ekitaldirik handiena. Topaketa horrek Estatu osoko 700 enpresa mobilizatu zituen, eta zirkulartasunarekin lotutako gaietan espezializatutako 150 hizlariren parte-hartzea izan zuen; ekitaldira 25 herrialdeko 1.300 profesional baino gehiago etorri ziren.



(05)

Klimaren Egoerari buruzko Txostenaren Aurkezpena

Ihobek, Euskalmet - Euskal Meteorologia Agentziaren lankidetzarekin, "Euskadiko Klimaren Egoera" izeneko lehenengo txostena argitaratu zuen; dokumentuak xehetasunez aztertzen du lurraldearen klima-eboluzioa 1970etik 2023era arte -eskura dauden azken datu erregistratuak urte horretakoak dira-. Txosten horrek nazioarteko eta eskualde mailako datu zientifikoak laburbiltzen ditu, eta lurraldeko kliman orain arte behatutako aldaketei buruzko ikuspegi integral bat eskaintzen du; horrekin batera, azterketak etorkizunerako klima-proiekzioekin osatzen ditu, eta horrek ahalbidetzen du datu zehatzagoak izatea, tokiko errealitatera egokituak.



(06)

Ingurumen- eta zerga-onura garbiak dituen tresna bat

Ihobek, EEEK eta Sprik bultzatutako Teknologia Garbien Euskal Zerrenda merkatuan eskuragarri dauden ekipo batzuen zerrenda bat da, ezaugarri hauek dituena: ekipo horiek ez daude oso txertatuta ekoizpen-sektoreetan, baina haien aplikazioa onuragarriagoa da ingurumenaren ikuspuntutik, helburu berbererako erabiltzen diren beste teknologia konbentzional batzuen aldean. Teknologia Garbien Euskal Zerrendan sartutako teknologiek ingurumen- eta zerga-abantailak ekartzen dizkiete enpresei, bertan sartutako edozein teknologiararen erosketak ahalbidetzen baitu % 35eko kenkaria lortzea ekipoen inbertitutakoaren kostutik, Sozietateen gaineko Zergaren kuotan. Tresna hori hedatzeko xedez, informazio-jardunaldiak egin ziren bai Bizkaian eta bai Gipuzkoan, ia 300 enpresaren presentziarekin.



(07)

ASTEKLIMA, Euskadiko Klima eta Energiaren Astea

Urriko hirugarren astean urtero egiten den ASTEKLIMA-Euskadiko Klima eta Energiaren Asteak milaka pertsona erakartzea lortu zuen berriz ere, 2025eko edizioan; izan ere, pertsona horiek parte hartu zuten klima-aldaketaren ondorioak ezagutzera eta prebenitzera zuzendutako ekintza herritar horren jarduera-programa zabalean. 2025eko edizioak dibulgazioa, sentsibilizazioa eta esperientzia praktikoak uztartu zituen, 37 erakundek antolatutako 138 jarduketei esker. Emaiza: 2.700 pertsona baino gehiago klima-ekintzarekin konprometituta.



(08)

Lurzoru kutsatuei buruzko Autonomia Erkidegoen bilera

Urrian, Ihebek Autonomia Erkidegoen lurzoru kutsatuei buruzko XV. foroa antolatu zuen. Topaketa tekniko horrek beste lurralde batzuetako adituak bildu zituen, lurzoruaren babesaren arloko aurrerapen, erronka eta esperientziak konpartitzeko. Foro hau hirugarren aldiz bildu da Euskadin, eta bere helburua da Autonomia Erkidegoen arteko lankidetzaz sustatzea, lurzoruaren kutsaduraren arloan.



(09)

BasquESGren aurkezpena

Euskadiko 2030erako Industria Planaren baitan, Eusko Jaurlaritzak BasquESG ekimena abiatu zuen, plan horretako proiektu eraldatzaile bezala. Estatuan aurrendaria izanik, ekimena Euskadiko ETE industrialentzat dago diseinatuta, enpresa horiek tresna estandarizatu bat izan dezaten euren ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-jokabidea (ESG) neurtzeko eta komunikatzeko, horren bidez nazioarteko finantziatziora eta hornidura-kateetara iritsi ahal izateko.



(10)

Euskadiko 2025eko Ingurumen Profila: Udal Hondakinak

2025ean, Ihobek Euskadiko 2025eko Ingurumen Profila aurkeztu zuen, udal-hondakinen egoera gai nagusitzat hartuta. Urteko txosten horrek ingurumenak gure lurraldean duen egoeraren eboluzioa deskribatzen du, egoerari, aurrerapenei eta erronkei buruzko ingurumen-adierazletan oinarritutako ikuspegi bat eskainiz, politika publikoei lotuta. Euskadiko 2025eko Ingurumen Profil berriaren arabera, EAE Europako batez bestekoaren azpitik dago pertsona bakoitzeko sortzen diren udal hondakinei dagokienez. 503 kg biztanleko EAEn, eta 513 kg biztanleko EB-27n.




2025 ARGITALPENETAN



EUSKADIKO KLIMAREN EGOERA 2025



INGURUMEN KOIUNTURA EUSKADI 2024



EKONOMIA ZIRKULARREKO ZAINTZA
ESTRATEGIKOKO TXOSTENA.
2025ERAKO 10 GAKOAK




EUSKADIKO INGURUMEN PROFILA
2025. UDAL HONDAKINAK

2025 ARGITALPENETAN



EUSKADIKO KARBONO-AZTARNAREN KALKULUA



ENERGIAREN ETA KLIMAREN IKUSPEGIA EUSKADIKO AURREKONTU OROKORRETAN TXERTATZEKO GIDA METODOLOGIKOA



VSME ESTANDARRA: BORONDATEZKO JASANGARRITASUN-TXOSTENAK ETEENTZAT



TEKNOLOGIA GARBIE EUSKAL ZERRENDA 2024

UDAKO ESKOLAK 2025

Udako ikastaroen esparruan, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta UIKren lankidetzarekin, Ihobek honako ekimen hauek antolatzen ditu: **Jasangarritasunerako Hezkuntza Eskola, Ingurumen Neurketa Aurreratuko Eskola eta Ingurumen Komunikazioko Eskola.** Horien bitartez, jasangarritasunaren erronka nagusiei heltzen die, hiru funtsezko ikuspegitik.

Diseinatuta daude **ingurumenaren zaintza eta hobekuntzan eragina duten ezagutza, ohitura eta jokabideak** eskuratzen laguntzeko.



The image displays three promotional cards for summer schools in 2025, arranged horizontally. Each card features a distinct header image, a title, logos of organizing institutions, and a date.

- Card 1 (Left):** Header image shows a forest scene with sunlight filtering through trees. Title: **IV Escuela de Educación para la Sostenibilidad 2030**. Logos: prest_gara and ihobe. Date: **3 Y 4 DE JULIO DE 2025**.
- Card 2 (Middle):** Header image shows a landscape with wind turbines and various green icons (leaf, recycling, wind turbine, water drop, globe, battery). Title: **Escuela de Medición Ambiental Avanzada**. Logos: Eustat and ihobe. Date: **4 DE SEPTIEMBRE DE 2025**.
- Card 3 (Right):** Header image shows a collage of green icons related to communication and community. Title: **Escuela de Comunicación Ambiental 2025: Conversaciones Km0 para conectar con la ciudadanía**. Logos: APIA and ihobe. Date: **11 DE SEPTIEMBRE DE 2025**.

NAZIOARTEKO PROIEKTUAK

Ihobek Europako nazioarteko proiektu batzuetan parte hartzen du, bai soluzio berritzaileen garapenerako eta bai erreplikatu daitezkeen esperientzien transferentziarako, besteak beste alor hauetan: klima-aldaketarako egokitzapena, aurrekontu-jasangarritasuna, ingurumen-gobernantza eta berrikuntza publikoa; halaber, beste helburu bat ezagutza truketzea da.

Proiektu hauek, gainera, bidea ematen dute ikuspegi aurreratuak eta europar jardunbide egokiak Euskadiko ingurumen-politiketan txertatzeko, bere lidergoa eta ingurumen-erronka globalei aurrea hartzeko ahalmena indartuz.

- URBAN KLIMA 2050  URBAN
KLIMA
2050
- OCTOPUSS 
- REGIONS4CLIMATE 
- PYRENEES4CLIMA 
- NEXT GENERATION BUDGETS

ALIANTZAK

Ihoberen jardunaren funtsezko oinarri bat **aliantzen sare sendo** bat da, horrek indartzen baitu trantsizio energetikoa eta klimatikoa Euskadin bultzatzeko duen ahalmena. 2025ean, lhobe sozietate publikoak **lankidetzan estuan lan egin du enpresekin, administrazio publikoekin, toki-erakundeekin, gizarte-eragileekin eta ezagutzaren arloko eragileekin**, eta baita **estatuko eta Europako sare eta foroekin ere**, ingurumen-ekintzari buruzko ikuspegi konpartitu eta koherente baten alde eginez.

Aliantza horiek **ahalbidetzen diote lhoberi bere jarduketan inpaktua biderkatzea, ezagutza aplikatua sortzea, jardunbide egokiak konpartitzea eta modu koordinatuan aurrera egitea**, besteak beste funtsezko eremu hauetan: ekonomia zirkularra, klima-ekintza, **tokiko jasangarritasuna eta ingurumen-hezkuntza, elkarlanean eta erantzukidetasunean oinarritutako gobernantza-eredu bat finkatuz.**



IHOBEKO PERTSONAK



55

pertsona
44 emakume
11 gizon



batez besteko
adina:

50

urte



% 85^{ek}

goi mailako
titulazioa du



% 7,22^{ko}

gogobetetasuna lhoben
egiten duten lanarekin

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Presidentea
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA
Industria, Trantsizio Energetiko eta
Jasangarritasuneko sailburua.

Presidenteordea
JOSU BILBAO BEGOÑA
Ingurumeneko sailburuordea

Bokala
NICOLÁS GARCÍA-BORREGUERO URIBE
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria

Bokala
ALBERTO JOSÉ FERNÁNDEZ GONZÁLEZ
Teknologia eta Berrikuntzako zuzendaria

Bokala
IÑAKI ALONSO ARCE
Ogasuneko sailburuordea

Bokala
OLGA MARTÍN GARCÍA
Aclima – Basque Environment Clusterreko
zuzendari nagusia

Idazkari ez-kontseilaria
ADRIANA ZABALA GALARZA
Ihobeko teknikaria arlo juridikoan

Zuzendaritza nagusia
ALEXANDER BOTO BASTEGIETA
Ihobeko zuzendari nagusia



 bideora esteka

ORGANIGRAMA

Zuzendaritza Nagusia
ALEXANDER BOTO BASTEGIETA

Estrategia eta Berrikuntza Zuzendaria
MARÍA GARCÍA FLECHA


Zuzendari Korporatiboa
JAIONE LAMBORENA ELORDUY

Komunikazio Zuzendaria
YOLANDA D. RODRÍGUEZ COUSO

Ekintza Kimatikoko Zuzendaria
M^a MAR ALONSO MARTÍN

Ekonomia Zirkularreko Zuzendaria
JOSÉ MARÍA FERNÁNDEZ ALCALÁ

Hondakin eta Lurzoruko Zuzendaria
XABIER GONZÁLEZ VEGAS



 bideora esteka

GARDENTASUNA




16,3
milioi €-ko
ustiapen-aurrekontua 2025ean



aurrekontuaren
%100eko
exekuzioa 2025ean



%0ko
zorpetze finantzarioa
2025ean



14
eguneko epea
batez beste, enpresa
hornitzaileei 2025ean fakturak
ordaintzeko

Konektatu, deskubritu, partekatu

Gure online komunitatearen parte izan



www.ihobe.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD